

Pako Sodupe

IDAZLEA

Gutun irekia politikari euskaltzaleoi!

Abenduaren 3aren biran aritu gara berriki, gure hizkuntza apal eta apaletsiaren egunaren birundan. Administrazioan zuek, politikari euskaltzaleok, gure eleari eman diezaiokezuen bultzadaz hitz egin nahi dizuet.

Oroz lehen, zeuen baitatik hasi beharko duzue hausnarketan. Kontzientzia indartzeko gogoeta egitea zein beharrezkoa den! Seguru bat zatoztela nirekin honetan: euskalgintzan aurrera aberrigintzan ere bai; eta alde bestea: euskalgintzan egonean aberrigintzan lozorroan! Euskararik gabeko independentzia guztiz mamirik gabea. Zer hizkuntzatan mintzo zarete taldean; zer hizkuntzatan lantzen dituzue gaiak?

Administrazioaren zerbitzupuan ari diren langileek –gehientsuenek behinik behin– hortxe nonbait dute dagokien hizkuntza eskakizuna ezarria. Politikariok ez, non ez diozuen zeuen buruari ezartzen! Gaiak gainera tabu itxura handiak ditu. Nola errespetatuko dituzte euskaraz ez dakiten politikariak euskaldunen eskubideak? Zer bide jorra dezakezue, euskal hautetsiok horra heltzeko, hots, zuek bezala Euskal Herriko politikariak euskaldunak izan daitezen?

Esan beharrik ez, herritar orok bezala betebeharrak eta eskubideak dituzue. Euskaraz bizi ez ezik lan ere egin nahi duzenok:



DANI BLANCO

zer tresna balia ditzakezue zuen euskalgintza oztopatua izan ez dadin? Udalbatzarretan eta informazio batzordeetan itzulpen zerbitzuaz baliatzea izan liteke behin-behineko irtenbidea? Euskaldun ez diren politikariekin gutxieneko akordioetara iristerik baduzue?

Teknikariekin harreman usua ohi duzue. Oro har, badakizue, aski maila ona izan ohi dutela euskaraz. Jarrera kontuan denetarik, noski. Gure hizkuntzan lan eginez elkar adoretu dezakezue, elkar motibatu eta behingoz euskaldun zirkuituak finkatzen lan handia egin.

Badakizue zuen jokaera erdarazkoa bada, horretara bideratuko dituzuela, eta alderantzizkoa bada, euskarara.

Azkenik, baina ez gutxienez garrantzizkoena, herritarrekin badakizue eragin handia duzuela. Urte luzetako zapalkuntzaren ondorioz euskaldun askoren jokabidea ez da batere eredu ona, baina hor ere asko egin dezakezue, gure hizkuntza apala gaurgero apaletsia izan ez dadin.

Itxurakeriarik gabe, ohiko diskurtso harro mamirik gabekoak alde batera, zintzotasunez eta jarraitibidea erakutsiz. Badakizue euskara aurrera aberria eraikitzen, euskara bazterrera aberria eraisten! Gure hizkuntza apala gaurgero apaletsia izan ez dadin. Euskararen egun on! Doakizue nire agurrik adiskidetsuena. ■

«
Administrazioaren zerbitzupuan
ari diren langileek hortxe nonbait
dute dagokien hizkuntza
eskakizuna ezarria. Politikariok
ez, non ez diozuen zeuen
buruari ezartzen!
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza

Kartzelan



Preso behar gaituzte irabaziko badute. Hau izan liteke zortziko handiko puntua, inor gutxi harrituko lukeena. Eta hori entzutean, besterik gabe entzuleek osatuko lukete balizko bertsoaren edukia, errima zerrenda buruan neurtzeko gauza ez izanda ere. Eta bertsolariak antzeko mezua hitz neurtutan tolesturik kantatzean, jasoko luke entzulearen onespina txaloz adierazia. Bakoitza bere lekuan eta makina martxan. Gaia, nola ez, izan liteke Espainiako hauteskundetako zerbait. Etxera ekarrita ere funtzionatu dezakeena. Eako Azkarraga jaunak egin nahi izan du bertsolariena “Kontsumatu dute...” esan

duenean. 18/98ari buruz ari zen. Hitz neurtuz ez, baina hitzak neurtuz aritu da. Botere aparatuan, Justizia atalean ardurak dituen baten ahotik hori entzun behar izatea egiten zait gogorra, horri, berak guk bezala astakeria deitzen dion horri aurre egiteko kapaz izan ez eta esate hutsez konforme gelditzen denean. Entzule bilakatzeko du bere jarrerak, sarrerarik ordaindu ez eta puntako bertsolaria balitz bezala mikroaren aitzinean eta botere tranpaldotik ahoa zabalduz kobratzen ari dena. Bitartean “Constitución”aren katixima hitzez ukatuz jarraituko da bizitzen. Zintzotasunak ez du etekinik inguru horietan, eta kia, bizi egin behar da. ■